

## DONOSTIAKO ELIZ DORREAK

Gizonaren barne muinaren adierazle erlijioa baldin bada, esan genezake elizak eta eliz dorreak direla hiri baten barne bizitzaren argitzaile, haren erlijioaren espresio.

Eta edozein hiri edo herritara begiratzen dugula, hor daukagu beti eliz dorrea, bere itzalean herria babesten eta bide batez herriaren argazki.

Historian zehar, eguneroko bizimoduko eta erlijio bizitzako aldaketak, pentsamoldearen berrikuntzak eta gizartearen jokatibidearen eraldaketak munduaren ikuspegi berriak eta artearen espresio antzaldatuak erakarri dituzte. Horregatik, estilo bakoitzak, eraikuntza-molde bakoitzak eliz dorre bakoitzak bere garaiko izaera, mentalitatea eta erlijiotasunaren itxura islatzen du:

- eliztarren gogoia eta otoitza zeruraino luzatzen duen gotikoaren bertikaltasuna

- Errenazimentuko eraberritzea, gizonaren forma klasiko eta benetakoetara itzuliaz


- barrokoaren aberastasuna, XVIII. mendeko ekonomiaren loraldiaren ispilu

- XIX. mendeko eklektizismo romantikoaren barnean hirigintza berrian kokatutako eraikuntza dotoreak

- E.a.


Iaz Donostiako kupula zibilen bilduma bat eskaini genizuen. Hara, orain, eliz dorreen zerrenda bat, Donostiako skylinea osatzeko.

Juan Mari Arrizabalaga



**1.- Andre Mariaren Basilika.- 1764.** Arkitektoa: Ignacio de Ibero.


Donostiarren izaerari dagokionez, bere amaren basilika barrokoa, rokoko ukituekin izan behar zuen. Eta hala jaso du Donostiak bere bizitzaren unerik kutunenak ikusi dituen erai-kin binain hau.



**2.- Artzain Onaren Katedrala.- 1888.** Arkitektoak: Manuel de Echave eta Ramon de Kortazar.


Donostiaren ardatz erlijiosoak: Katedrala eta Andre Mariaren eliza: Neogotikoa eta barrokoa aurrez aurre, eta, inguruan gaintzeko estilo guztiak.






**3.-San Bizente Eliza.- 1507.** Harginak: Miguel Santaceley eta Juan de Urrutia.

Estilo gotiko berantiarrekoa, Donostiako eraikinik zaharrena da, baina dorreak 1856an erantsi zizkioten. Hiriaren gogoia lehenbiziko aldiz mendi maldatik gora zerurantz.



**4.- San Inazio Eliza.- 1892 (eliza), 1928 (dorrea).**


Neogotikoa. Dorre honen konposaketa bitxia Groseko auzoa, Donostiaren "anai txikia" ordezkatzeko eginda dagoela dirudi.



**5.-Zorroagako eliza.- 1910.-** Domingo de Aguirrebengoa eta Lucas Alday.


Victoria Erreginaren Babesgunearen zati, gotiko ingelesaren erakusgarri bitxia dugu eliza hau. Haren pinakuluak eta tarteen banaketa bereziak hala adierazten dute.





### **6.- Bihotz Sakratuaren Eliza.-**


Donostiarrek erabaki al zuten dorre bikain honek ez zuela eskubiderik Kontxako badiaren edertasuna ikusteko? Ala bere kabuz norabaitera joan zitzaigun kokagune hori beretzat egokiena etz zalako?



### 7.- Martuteneko kolegioa.-


Jakituriaren birreta arkitektura egina, barne bizitza sendoaren babesak kupula eta apaindura eginak. Dorreari begira, barruko ikaskuntza eta heziketa dinamika ikus daiteke.






**8.-Santa Teresa komentua.- 1666-86.** Fray Pedro de Santo Tomás.

Lau mendetan zehar, Urgull mendiaren eta Motako gazteluaren gorabehera historikoak jasan behar izan ditu mojen komentu honek, bere barne bizia eta arkitektura gertakari horiei egokitzeko ahaleginak eginaz.



### **9.-Portuko San Pedroren Eliza.-**


Itsasoko balantzetatik datorrenarentzat sendotasuna, ekaitzeta-  
tik onik atera denarentzat babes, zalantzan murgildurik egon  
denarentzat ziurtasuna.



**10.-Karmeldarren eliza.- 1912.** Jose de Gurrutxaga.


Eraikinak hiri barruko komentu baten papera ongi betetzen badu ere, proiektuak zekarren kale kantoiko dorrearen falta sentitzen dugu. Hala ere, gailurraren apaltasun arkitektonikoa ornamentazioaren harmoniaz beteriko apaindurarekin bikain dator.






### 11.- Mariaren Bihotzen eliza.-

Kanpai hotsa dorre bihurtu da; organoaren musika notak dorrearen edergarri egin dira, eta arin tentetzen zaigu Bachen to-cata bat balitz bezala.




### **12.-Altzako parrokia.**

Harlanduen zuzentasuna, kurba leunez eratutako leiho gotikoak, harmoniaz eratutako gailur bitxia, dena barruko altxorraren giltza eta, aldi berean, kutxaren sarraila eta zirrikitua.




**13.-Antiguako San Sebastian eliza.- 1889.** Jose Goikoa.-  
Karlistadan jatorrizko eliza txunditurik gelditu zen eta bere to-  
kian gaur Miramarreko jauregia badago ere, beheraxeago be-  
rreiraiki zen Donostian San Sebastiani eskainita dagoen eliza  
bakarra estilo neogotiko berezian.





#### **14.- Añorgako parrokia**


Lantegietako zementuzko dorreak ba al dute eskubiderik eliz dorrea baino altuagoak izateko? Haiek nekaldi, hau atsedeen; haiek zarata, hau kanpai; haiek zigor, hau sari...



### 15.- Aieteko parrokia

Arkitektura alderantziz planteatuta: Zuritasunaren distira harriaren sendotasunaren oinarri bihurtuta, argiak gorputza zerurantz bultzatuko balu bezala.






### 16.- Teresa enea.-


Harriak -batzuk borobilak eta besteak karratuak-, beirateak -urdinak, gorriak, orlegiak...-, burnia, brontze landua elkarri lepotik helduta, hara, gizartearen eraikina.






**17.-Mariaren Konpainiako kolegioa. 1921.** Arkitektoa:  
Lucas Alday.

Aietetik gora harro doaz hodeiertzera ikastetxearen dorreak.  
Ez ote diegu utziko beren dotorezia mudu zabalari aurkezten?  
Etxebizitzak jakinduriaren jauretxea erakutsi behar ote du?



**18.- E.U.T.G.ko kapila.- 1967.-** Arkitektoak: Miguel Oriol eta Bizente Orbe.


Dorre hau hirukiaren gorespena dela esan daiteke. Hirukiak berez hiru aldetarako joera badu ere, hemen hirukitasuna gorako abiadaren bultzada bihurtzen zaigu.



**19.- Igokundeko kolegioa.-**


Norantz doa ikastetxea, kanpaia din dan ari dela? Nora zuzentzen dute pinakuloek bere hesia? Eta rosetoia barrura ala kanpora begira dago?





**20.- Notre Dame kolegioa.-**


Jakituriaren harrokeriaz tinko munduaren aurrean; jakin-minaren jakin-minez begiak zabalik munduaren aurrean.



### **21.-Mendiko San Jose eliza.**

Mimetismoz ezkutatu al da dorrea? Ala zeruaren hutsunean sartu nahi izan du gailurra? Ala kanpandegia zerutik zintzilik dago elizaren gainean?





**22.- Elizbarrutiko seminarioa.- 1947.** Arkitektoa: Jose Maria de la Vega.

Apaizgaien hainbeste oihu alai, hainbeste otoitz, hainbeste ikasgai buruz errepikatzen entzun eta gero, hainbeste esperantza, hainbeste ilusio, hainbeste dezepzio ikusi eta gero, seminarioko dorreak bere bakardadean triste daude.